



DIRU ITURRIAK

Gure **enpresa aurrera ateratzeko finantzazioa behar** dugu, inbertsio handi bat egin behar baitugu. Horretarako, Mariak eta Leirek 20.000€-ko **aurrezkoa** dute. Baina diru kopuru hau ez denez nahiko ekiteko, **Sabadell bankuari mailegu** bat eskatuko diogu. Ondoren, erdi urte eta gero gutxi gorabehera, **salmentekin hornitzeko gai** izango gara.

Sabadell bankuaren **“PRESTAMO EXPANSIÓN”** eskatuko dugu.

60.000€ eskatuko ditugu **48 hilabetetan ordaintzeko**, eta lehenengo **hiru hilabetetan ez** dugu ezer ez **ordainduko**, arazorik ez izateko (aukera hori eskaintzen da).

Beraz, **hilabete bakoitzeko kuota** hirugarren hilabetetik aurrera **1.486'00€** da.

Calcula tu cuota ²

¿Cuánto dinero necesitas? **60.000€**

Desde 2.500 € Hasta 60.000 €

¿En cuánto tiempo lo quieres devolver? **48 meses**

18 meses 96 meses

Tu cuota mensual

1.486,00 €

· TIN: 8,75 % ³

· TAE: 13,45 %

· Comisión apertura: 1.650 €

· Prima del seguro: 2.338,8 €

· Importe total adeudado: 75.616,20 €

· Comisión estudio: 300 €

<https://www.bancsabadell.com/prestamoexpansion/>

<https://www.bancsabadell.com/cs/Satellite/SabAtl/Prestamo-Expansion/1191332203216/es/#>

Gure **antolamendua diruarekiko hurrengoa** da:

- I. **Proiektuarekin hasteko**: bakarrik behin ordainduko ditugun ondasunak eta zerbitzuak gure **aurrezkiekin ordainduko** ditugu:

HASIERAKO AURREZKIAK	20.000€
≈KOSTUAK (lizentzia, ordenagailuak, telefonoak, inprimagailua, beste makinak, patentearen gastuak eta maileguaren hasiera komisioa, azterketa komisioa nahiz aseguru-prima)	18.200€

Beraz, kostu guztien batuketa **18.200€** inguru da, eta kantitate hau aurrezkiei (20.000€) kentzean **1.800€-ko aurrezkoa** geratzen da, badaezpada beti gordailua izateko.

- II. **Lehenengo bi hilabetetan**: **ez dugu salduko**, bost ingeniariiek Larrialdietarako makila **nola funtzionatuko** duen argituko dute, hauen **zirriborroak** prestatuko dituzte, makila **hobetuko** dute... eta ugazabek **sare sozialak** sortuko dituzte,



web gunea prestatuko dute, **publizitatea** antolatuko dute... Hortaz, hilabete hauetan **ez dugu diru-sarrerarik** izango, baina **bai gastuak**. Hauek ordaintzeko Sabadell bankuan eskatutako **mailegua erabiltzea** daukagu, eta ez dugu kuotarik ordaindu behar horrela aukeratu genuelako (lehenengo hiru hilabeteetan). Hauek dira egongo diren **diru-mugimenduak** gutxi gorabehera bi hilabeteetan:

GERATZEN DIREN AURREZKIAK SABADELL BANKUAREN MAILEGUA	1.800€ 60.000€
≈ KOSTUAK BI HILABETEETAN (alokairuak, 5 ingeniarien soldatak, argia, ura eta bestelakoak)	25.200€

Hortaz, lehenengo bi hilabeteetan **gastuak 25.200€ inguru** izango dira; beraz, maileguaren dirutik oraindik **34.800€ geratuko** litzaizkiguke, baita gure aurrezkien **1.800€** ere.

- III. **Hurrengo lau hilabeteetan (3.-6.):** salduko dugu baina **ez asko**, oraindik hazten egongo baikara eta ez garelako oso ezagunak izango. Beraz, lau hilabete hauetan **250 makila inguru salduko** ditugulako aurreikuspena daukagu. Hilabete hauetako **kostuak ordaintzeko maileguaren** dirua, gure **aurrezkiak** eta makila hauen **salmentek** emango dizkiguten **irabaziak** dauzkagu. Hala ere, **saiatuko gara gure aurrezkiak ez erabiltzen**, bakarrik beharrezkoa izatekotan erabili nahi ditugulako, azken irtenbide bezala. Halaber, 4., 5. eta 6. hilabeteetan **maileguaren kuota** ordaindu beharko dugu (3. hilabeteetan ez, aurretik azaldutakoa dela eta -lehenengo hiruretan ez da ordainduko-). Hauek dira lau hilabete hauetan egongo diren **diru-mugimenduak** gutxi gorabehera:

GERATZEN DIREN AURREZKIAK MAILEGUAREN SOBERAKINAK ≈ DIRU-SARRERAK (SALMENTAK)	1.800€ 34.800€ 68.750€
≈ KOSTUAK LAU HILABETEETAN (≈250 makila) (alokairuak, hiru ingeniarren soldata, makilak ekoizteko eta bidaltzeko gastuak -materialak, bidalketa-kutzak...-, argia, ura eta maileguaren kuotak)	83.300€



Honekin eta guztiarekin, lau hilabete hauetako **kostuak** (83.300€) **ordaintzeko diru-sarrerak** (68.750€) eta **mailegua** (soberan 34.800€ genituen) erabiltzen baditugu, oraindik geratuko zaizkigu maileguaren 20.250€. Beraz, lau hilabete hauetan zehar (eta aurrerantzean), edozein momentuan **diru gehiago behar izatekotan** edota aurreikusitakoa baino **makila gutxiago saltzekotan** oraindik izango ditugu **maileguaren 20.250€ eta aurrezkien 1.800€** badaezpada.

IV. **Hemendik aurrera hilabete guztietan: bakarrik gure bezeroen erosketekin hornitzeko gai** izango gara; beraz, gure **diru iturriak** izango dira. Hilabete bakoitzean **150 makila inguru** salduko ditugula aurreikusten, hauek izango dira **hilabete bakoitzeko diru-mugimenduak** bigarren urtea amaitu arte (momentu horretan maileguaren kuotak ordaintzen amaituko baitugu eta; hortaz, jadanik ez dugu kostu hori izango, beraz, irabaziak handiagoak izango dira):

GORDAILUA (aurrezkiak+mailegua)	22.050€
DIRU-SARRERAK (\approx 150 makila)	41.250€
GASTUAK (\approx 150 makila) (alokairuak, soldatak, makilak ekoizteko eta bidaltzeko gastuak -materialak, bidalketa-kutxak...-, argia, ura eta maileguaren kuota)	38.500€

Beraz, **etekin ekonomikoa hilabete bakoitzean 2.750€** dira. Hauek **ugazaben soldata** nahiz **enpresaren gordailu** (mailegutik soberan zegoenarekin eta gure aurrezkien soberakinekin: **22.050€**) izango dira.

Honekin eta guztiarekin, **proiektuarekin hasteko bankuak** emango digu dirua, mailegu baten bidez, eta gure **aurrezkiak** izango ditugu ere bai. Baina, gutxi gorabehera erdi urte pasa eta gero, gure **bezeroak izango dira diru iturriak**, haien erosketek hornituko gaituzte eta. Bezeroek **274,99€ ordainduko dute** makila bakoitzeko. **Prezioa kalkulatzeko** hurrengo datuak eduki ditugu kontuan:

MAKILA BAKOITZEKO KOSTUAK (hilabete bakoitzeko gastuen zatiketa)	255€
Mozkina	19'99€
Salmenta-prezioa	274'99€



Prezioa **finkoa** izango da. Egia da noizbehinka **promozioak** egingo ditugula (deskontuak hitzaldietan...) baina **prezioa funtsean ez da aldatuko** eskariaren arabera, **aurredefinituta** dago eta.

Hala ere, **prezioa handitu daiteke osagarri** batzuk jartzekotan: bateria gehigarria, uhala edota linterna. Aukeratutako **koloreak**, aitzitik, **ez du prezioa aldatzen**.

Diru-sarrerak lortzeko aktiboen salmenta eramango dugu aurrera; hau da, batik bat, **Larrialdietarako makila saltzen** lortuko dugu dirua irabaztea, eta kopuru txikiagoan haren **osagarrien** bidez.

Ordainketa bakarra izango da. Badakigu agureek orokorrean 274'99€ **aurrezteko zailtasunak** izan ditzaketela, baina batez ere hasieran **dirua behar dugu**. Gerta liteke bankuko mailegua ordaintzen amaituko dugunean (lau urte pasa ondoren) **ordainketa errepikarioak** aurrera eramatea planteatzea, hilabete bakoitzean kuota txiki batzuen bitartez ordaintzeko. Hala ere, **momentuz, lehenengoz haien kabuz aurreztu** beharko dute eta **ondoren diru osoa eman**.

Amaitzeko, gure **kostu handienak aldakorrak** dira; izan ere, Larrialdietarako makila egiteko **piezak nahiz materialak garestiak** dira. Hortaz, **oso zaila** izango da makilen **prezioa izugarri jaistea**.